BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, "UDA-PASA ARTISTIKOAK" IZENEKO UMEENTZAKO PROGRAMAREN BARRUAN EGINGO DIREN JARDUERAK ANTOLATZEKO ETA PRESTATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA –PROZEDURA IREKI BIDEZKOA– ARAUTUKO DUENA

1.- XEDEA

Baldintza Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuak helburu hau izango du: "UDA-PASA ARTISTIKOAK" IZENEKO UMEENTZAKO PROGRAMAREN BARRUAN EGINGO DIREN JARDUERAK ANTOLATZEA ETA PRESTATZEA Mungiako Udalak horretarako aukeratzen dituen instalazioetan, bereetan edo Mungian dauden beste erakunde, fundazio eta osterantzekoen instalazioetan.

2.- BALDINTZA TEKNIKOAK

Eskola-egutegiko oporrak direla eta, umeek aisialdi luzea izaten dute. Uda-pasa artistikoen bidez, umeei opor horietarako kultur- eta aisialdi-eskaintza bat eman nahi die Udalak, euskararen erabilera eta diziplina askotariko adierazpen artistikoak ardatz direla. Horretarako, dinamika ludiko, erakargarria eta hezitzailea erabiliko da eta, bide batez, familia- eta lan-bizitza uztartzeko aukera erraztuko da.

Mungiako Udalak uztailean zehar euskarazko Uda-pasa artistikoen txanda bi antolatuko ditu, umeen sen artistikoa musikaren, dantzaren, arte eszenikoen eta plastikoen bidez pizteko; betiere, jokoetan, interpretazioan, kantuan, dantzan eta antzeko dinamiketan oinarrituko diren teknika dibertigarriak eta partehartzaileak erabilita. Uda-pasak uztailean egingo dira, hamar laneguneko txanda bitan, elkarren segidan.

Mungiako Udalak, Uda-pasa artistikoen bidez, gizarteak daukan eskari horri erantzun nahi dio; horretarako, batetik, umeentzako eguneko udalekuak eskainiko dira eta, bestetik, bazkari-zerbitzua ere emango zaie hala eskatzen dutenei. Dena den, bazkari zerbitzua horretarako egoera egokia bada eta osasun agintariek emandako jarraibideek aukera ematen badute baino ez da eskainiko. Edozein kasutan ere, zerbitzu hori kontratu honetatik kanpo gelditzen da.

Udalekuen deskribapena: baldintza teknikoen Agiri honetan ezarritako helburuak betetzeko jarduerak eta tailerrak eskaini beharko dira Uda-pasa artistikoetan. Jarduera eta tailer horiek guztiek enpresa adjudikaziodunak berak dituen helburuekin bat egin beharko dute eta garatuta agertu beharko dira aurkezten den proiektuan. Jarduerak antolatzean, kontuan izan beharko da bazkarien ordutegia, bazkaltzen gelditzea erabakitzen dutenen kasuan.

Bazkari-zerbitzua, catering bidez egingo da, eta beti ere, lehen esan den moduan, horretarako aukera egonez gero. Umeak momentu oro egongo dira irakasle eta begiraleen zaintzapean. Bazkaltzen gelditzea edo ez gelditzea aukeran egongo da, familiek erabaki beharko dute, eta zerbitzu hori parte-hartzaileek ordaindu beharko dute osorik.

2.1.- ORDUTEGIA

Kontratu honen xede diren jardueretan parte hartzeko, interesdunek ordutegi bi izango dituzte aukeran:

-Udaleku artistikoak: 9:00etatik 13:00etara
-Udaleku artistikoak + bazkaria + bestelako jarduerak: 9:00etatik 15:00etara.

Txanda bakoitzeko azkeneko egunean Amaierako Jaialdia egingo da (emanaldi hori eguneko ordutegiari gehituko zaio arratsaldean). Jaialdi horretan, txanda bakoitzean parte hartu duten umeek –irakasleek eta begiraleek lagunduta– emanaldi berezi bat eskainiko diete euren familiei. Bertan, umeek Uda-pasa artistikoetan landutako programa interpretatu eta erakutsi ahal izango dute.

Zerbitzuko langileek, umeei arreta eskaintzeaz gain, beharrezkoa den denbora eman beharko dute saioak prestatzen, baloratzen, koordinatzen, gurasoen zalantzak argitzen, materiala batzen...

Aurten, hala ere, bizi dugun osasun-egoera dela medio, Mungiako Udalak honako ordutegi honetan eskainiko du Uda-pasa artistikoa.

Udaleku artistikoak: 9:00etatik 14:00etara, eta bazkari-zerbitzu barik.

Ildo beretik, 2021eko uda-pasen amaierako jaialdi-ekitaldia egitea edo ez egitea ere, une horretan indarrean egongo den osasun egoeraren arabera erabakiko da.

2.2.- ZERBITZUAREN HARTZAILEAK

Umeentzako Programa hau Mungian erroldatutako 4 eta 12 urte bitarteko umeei dago zuzenduta. Adin hori beteta izan beharko dute Uda-pasak hasten direnean edo, behintzat, urtean zehar bete beteko dute. Programa honen parte-hartzaileak adin-taldeka banatuko dira, jarduerak ahalik eta ondoen egiteko. Ekintza guztiak egongo dira egokituta adin-tarte bakoitzaren ezaugarrietara. Eskainiko diren uda-pasa bietan, adin-tarte bakoitzeko partehartzaile-kopurua izena ematen duen ume kopuruaren arabera ezarriko da.

Gutxienez 100 plaza eskainiko dira eta gehienez hamabostaldi bakoitzeko; eta Mungian erroldatuta daudenek izango dute lehentasuna plazak hartzeko.

Izena emateko epea amaitutakoan, ikusten bada laguntzaile gehiago kontratatu behar dela arreta egokia eskaini ahal izateko desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialen bat duten umeei edo beharrizan bereziren bat dutenei; enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateko beharrezko diren langileak jarriko ditu.

Programa honek 100 umeri era batera zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren antolaketa eta aurrekontua izan beharko ditu aurreikusita, bai baliabide pertsonalei eta bai materialei dagokionean. Udaleko arduradunek kopuru hori handitzeko edo murrizteko eskatu ahal izango dute.
Izen-emateen kopurua ez bada nahikotzat joten programa behar den moduan garatzeko, Mungiako Udalak bertan behera utz dezake zerbitzu hau eta, ondorioz, bere kontratazioa.

2021ean hartu beharreko osasun-neurriak direla medio, murriztu egin da hamabostaldi bakoitzerako eskaintzen den plaza kopurua, hau da, 60 plaza hamabostaldiko. Dena den, aforo hori aldatu egin ahal izango da gorantza eta, osasun egoeraren arabera, gehienez ere 100 plaza izango dira.

2.3.- PROIEKTUAREN GARAPENA

Uda-pasa artistikoak izeneko proiektuaren diseinua enpresa adjudikaziodunak egingo du, betiere ondoko irizpideetan oinarrituta:

Helburuak:
Umeen udako "dinamikak" aldatzeko kapaz izango den marko bat sortu.Euren aisialdia proiektu hezitzaile baten bidez gauzatzeko aukera eman, programan parte hartuko duten familien lan- eta familia-bizitza uztartzeko erraztasunak emanda.

Umeei azaldu zein aukera zabala duten euren udako aisialdiaz gozatzeko, modu ludikoan ikasteko gogoa piztuta. Betiere, umeen sentsibilitate artistikoa garatzeko garrantzia azpimarratuta.

Musikan, interpretazioan, dantza eta kantuan sakondu, pertsonaren garapen integralean normalizatuta dauden arlo modura, ikuspegi ludiko-kulturala jagonda.

Mainstreaming estrategia erabili: umeen garapen integrala sustatu, genero ikuspegitik, betiere, balore positiboetan oinarrituta.

Parte-hartze aktiboa sustatu, baita ekimena eta taldean lan egiteko gaitasuna ere.

Kultur-aniztasuna landu. Ahalegindu umeek euren egunerokoan beste kultura batzuk ezagut eta errespeta ditzaten.

Euskara normaltasun osoz erabili, komunikazio-tresna nagusi modura, ez ikasketa-gai modura.

Metodologia:
Metodologia dinamiko eta partehartzailea erabili beharko da, umeak partehartzaile eta protagonista bihurtuta; talde-lana lehenetsiko da, eta jarduerak modu ludikoan eta atseginean bideratzeko ahalegina egingo da. Jarduerak eurak ez dira helburu izango, baizik eta adierazitako helburu horiek lortzeko bitartekoa. Era ezberdinetako jarduerak egingo dira, aspergarri edo errepikakor izan ez daitezen umeentzat.

Irakasleek eta begiraleek arreta handiagoa eskainiko diete, arrazoia edozein dela ere, taldeetan egokitzeko arazo gehien dituzten umeei.

Jarduera-programa eta jardueren deskribapena:
Programan zehaztuta agertu beharko du zeintzuk izango diren egingo diren tailerrak eta jarduerak. Programa horrek gutxienez ere ondoko edukiak izan beharko ditu:
Dantza: errepertorio zabala; dantza modernoa, klasikoa eta euskal tradiziokoa batuko dituena.
Musika eta kantua: errepertorio zabala; musika modernoa, klasikoa eta euskal tradiziokoa batuko dituena.
Arte eszenikoak: gorputzaren bidezko adierazpena, ahots-proiekzioa, mimoa...
Olgetak: jarduera fiskoa eskatzen duten jokoak eta herri-jokoak.
Arte plastikoak: norbere materiala sortzeko teknikak (dekoratuak, mozorroak eta abar sortzekoak)
Familientzako kontzertua eta Uda-pasen Amaierako Jaialdia: txanda bakoitzeko azkeneko egunean egingo dan emanaldi horren bidez emango zaio amaiera Uda-pasen hamabostaldi bakoitzari.

Lehen esan bezala, uda-pasen amaierako jaialdi-ekitaldia egitea edo ez egitea ere, une horretan indarrean egongo den osasun egoeraren eta pandemiari eutsi beharraren arabera erabakiko da.

Giza baliabideak

KOORDINATZAILEAk gidatuko ditu *Uda-pasa artistikoak*. Bera izango da programa hori modu eraginkorrean kudeatzearen arduradun, baita programa garatzen den bitartean sor litezkeen arazoei irtenbidea ematearen arduradun ere. Gainera, zerbitzu-ordu guztietan egon beharko du bertan.

Koordinatzaileak, Udaleko Kultura Sailarekin elkarlanean, zehaztuko du jarduera-programa, eta horren inguruan sor litezkeen zalantzak erantzungo ditu eta gorabeherei konponbidea emango die.

Koordinatzailearekin lankidetzan arituko dira gainerako irakasle eta begiraleak, euron ardura izango da umeei zuzeneko arreta eskaintzea eta jarduerak dinamizatzea.

Irakasleak:

4 irakasle, honako diziplina hauetakoak:

-Musika eta kantuari lotutako jarduerak: kualifikatuta dauden eta dagokien titulazioa duten irakasleek emango dituzte. Irakasle horiek, gainera, esperientzia izan beharko dute diziplina hauen irakaskuntzan.

-Arte eszenikoei lotutako jarduerak: antzerki munduan, aktore- edo zuzendari-lanetan, ibilbidea duten irakasleek emango dituzte.

-Dantzari lotutako jarduerak: dantza klasikoko eta garaikideko titulazioa duten irakasleek eskainiko dituzte diziplina horiek. Irakasle horiek, gainera, esperientzia izan beharko dute diziplina hauen irakaskuntzan.

-Olgetei lotutako jarduerak: gorputz heziketako eta kiroletako titulazioa duten irakasleek gidatuko dituzte. Irakasle horiek, gainera, esperientzia izan beharko duten diziplina horretan.

Begiraleak:

Irakasleei laguntzeko begirale 2; aisialdiko begirale titulua, horren baliokidea edo maila altuagokoa dutenak.

Euskarari dagokionez, zerbitzu hau eskainiko duten langile guztiek izan beharko dute egiaztatuta Europako Erreferentzia Markoko C1 titulua edo, bestela, ahozko maila hori badutela egiaztatzeko, Mungiako Udal Euskaltegiak edo Euskera Sailak egingo dien froga gainditu beharko dute. Beraz, bermatu egin beharko da jendaurreko lana egingo duten langile guztiek gaitasuna dutela Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza bietan komunikatzeko eta, zerbitzua eskaintzean, bete egin beharko dituzte Mungiako Udalaren Euskararen Ordenantzan ezarritako irizpideak eta Mungiako Udalaren Euskara Sailak emandako jarraibideak.

Era berean, bazkari zerbitzua hartuko duten umeei lagunduko dieten enpresa adjudikazioduneko langile guztiek janari-erabiltzaile titulua izan beharko dute, janaria banatzen lagunduko dute eta.

Zerbitzuaren adjudikazioa hartzen duen enpresak hartuko du jardueraren asistentzia kontrolaren ardura; horretarako, asistentzia-fitxak bete beharko ditu eta gai horretan gertatzen diren gorabeheran berri eman beharko dio egunero Kultura Arloari. Zeregin hori

betetzeko enpresa adjudikaziodunak pertsona bat izendatuko du eta pertsona hori izango da Udalarekiko harremanetarako solaskidea.

Enpresa adjudikaziodunak derrigorrean bete beharko ditu, zerbitzua eskainiko duten langileei dagokienez, honako arloetan indarrean dauden lege-xedapenak: lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higiene arloan; Udalak ez du inolako erantzukizunik izango enpresak betebehar horiek betetzen baditu. Era berean, langileei **Bizkaiko Eskuhartze Sozialeko Hitzarmenean** agertzen diren soldata-tauletan ezarritakoaren arabera ordaindu beharko die enpresa adjudikaziodunak.

Adingabearen Babes Juridikoaren uztailaren 28ko 26/2015 Legeari jarraituta, jarduera hasi aurretik honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du adjudikaziodun enpresak:
Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egindako egiaztagiria, era horretako aurrekaririk ez dagoela egiaztatzen duena. Kontratatutako enpresak kontratuaren exekuzioak irauten duen denbora osoan adingabeekin harremanetan egongo diren pertsona guztien berri eman beharko dio Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren Kontratazio Arloari.

Horren gainera, zerbitzu hori eskainiko duten langileek identifikazio ikusgarri eramango dute denbora guztiak, hau da, adjudikaziodun enpresarena; udaleko langileengandik bereizteko. Datuen Babeserako Legeari jarraituta, adjudikazinodun enpresarekin kontratua sinatuko da gai horretan jarraituko zaien irizpideak bertan ezarrita daudela.

Enpresak eskaintzan ezarritako guztirako prezio horren barruan sartuko dira lanetarako materiala, industria-etekina, zergak –balio erantsiaren zerga barne–, aseguruak, langile-gastuak, gizarte-kargak eta gainerakoak. Mungiako Udalak ez du ordainduko, inola ere, kontratuaren adjudikazio-preziotik gorako ezer.

Baliabide materialak
Jarduerak egiteko beharrezko den material guztia Udalak jarriko du, bere kontura; behar den material hori Udalaren eta enpresa lizitatzailearen artean adostuko da; hain zuzen ere, matrikula kopuruaren eta ekitaldi bakoitzean Udalak horretarako ezartzen duen aurrekontuaren arabera.

2.4.- KOORDINAZIOA ETA EBALUAZIOA

Uda-pasa artistikoak izeneko programa behar bezala gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da enpresa adjudikaziodunaren eta Udaleko Kultura Arloaren arteko koordinazioa. Horretarako, jarduerak eta programaren egitura eta arduradunak aztertuko dira. Hori dela eta, enpresa adjudikaziodunak amaierako txostena aurkeztu beharko du adjudikazio-urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehenago; bertan, gutxienez ere, honako datuak jaso beharko dira:

-Parte-hartzaile kopurua eta euron asistentzia.
-Egindako jarduerak eta euron gaineko gogobetetze-maila, jarduerei buruzko balorazioa –parte-hartzaileek (familiek) eta irakasleek egina–, ondorioak, zerbitzua hobetzeko proposamenak eta sortutako agiriak eta material grafikoa.

Era berean, Amaierako Memoria horretan Memoria Ekonomikoa ere sartu beharko da. Memoria Ekonomikoan kostu guztiak jaso beharko dira banan; hau da, bai zuzenekoak (lanekoak), bai zeharkakoak eta bai bestelako gastuak.
Amaierako Memoria paperean eta formatu digitalean (CD edo USB) aurkeztu beharko da.

3.- ADJUDIKAZIODUNEN BETEBEHAR TEKNIKOAK

Baldintza Administratiboen Agirian ezarritako betebehar orokorretatik aparte, enpresa adjudikaziodunak honako konpromisoak hartuko ditu:

Aukeratutako proiektua eskaintzan agertzen diren pertsonek gauzatu beharko dute eta eskaintzan ezarritako baldintzetan, Udalaren jarraibideak beteta.
Umeen erantzukizuna izango du, irakasleek/begiraleek hartzen dituztenetik umeen arduradunak batzen dituztenera arte. Umeak ezingo dira Uda-pasa artistikoetatik irten euren gurasoetakoren bat edo tutorea bila ez etorri ez bazaie.

Ume-zerrenda egunero irakurri beharko da. Asistentzia faltak eta izandako gorabeherak egunero apuntatuko dira.

Udaleko arloari / arloei aldiro-aldiro emango zaie programaren garapenari eta gertatutako gorabeherei buruzko informazioa.

Jagon egin beharko dira Udalak utzitako altzariak eta tresneria, baita instalazioak eurak ere.

Erantzukizun Zibileko eta Istripuetarako Aseguru bat kontratatu beharko du enpresak aseguru-etxe batekin; egingo diren jarduerak barruan aseguratuta egon daitezen. Aseguru horren kopia bat Mungiako Udalari aurkeztu beharko dio, eta udalekuak gauzatzen diren zentro guztietan ondo hornitutako botikin bat jarri beharko du.

Udako tailerra amaitutakoan, enpresa adjudikaziodunak AMAIERAKO MEMORIA aurkeztu beharko du, adjudikazio-urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehenago. Memoria horretan, gutxienez ere, ondoko datuek / agiriek agertu beharko dute:

-Parte-hartzaile kopurua eta euron asistentzia.

-Egindako jarduerak eta euron gaineko gogobetetze-maila. Jardueren balorazioa, bai irakasleen aldetik, eta bai parte-hartzaileen aldetik ere.

-Ondorioak eta hobetzeko proposamenak.

-Agiriak eta material grafikoa.

Amaierako Memoria paperean eta formatu digitalean (CD edo USB) aurkeztu beharko da.

4.- UDALAREN KONPROMISOAK

Udalak Uda-pasa artistikoak egiteko beharrezko diren lokalak eduki, baimendu eta erreserbatu beharko ditu; eta ez jardueretarako lokalak bakarrik, bazkariak emateko eta Uda-pasa bakoitzaren amaierako jaialdia egiteko behar diren lokalak ere bai (jaialdiaren kasuan, rider teknikoa ere jarri beharko du); beti ere, une horretako osasun-egoerak uda-pasaren amaierako jaialdia egiteko aukera emanez gero.

Zabalkundea, publizitatea, izen-ematearen kudeaketa eta Uda-pasa artistikoetako prezioaren kobrantza egitea Udalaren esku gelditukо da. Halaber, Udalak ezarri beharko du (bere eskumen

esklusiboa izango da) Uda-pasa artistikoko modalitate bakoitzaren prezioa (bazkariduna / bazkari gabea), baita Uda-pasen prezioan Mungian erroldatuta egoteak edo ez egoteak izango duen eragina ere; prezioen berri Mungiako Udalaren Prezio Publikoen Ordenantzan emango da. Era berean, Mungiako Udalaren eskumenekoa izangoa da tarifa horiek kobratzea.

Mungiako Udalak, onartuen zerrenda jendaurrean izan ostean (dagokion denbora-tartean), enpresa –adjudikaziodunari emango dio. Zerrenda horretan onartutako umeen adina agertuko da, baita beharrizan bereziak (izanez gero) ere. Enpresak datu horiek (ume kopurua eta euron adina) erabiliko ditu Uda-pasetako txanda bakoitza behar bezala antolatzeko eta beharrezkoa eta egokia den langileria kontratatzeko.

Udalak Uda-pasetan bazkari zerbitzua eskaintzea erabakiz gero, Udalaren ardura izango da jaten geratuko diren ume, irakasle eta monitore laguntzaileei zerbitzu hori emango dien enpresa kontratatzea.

Udalaren ardura izango da lokalak jagonda eta behar bezala hornituta izatea (garbi-ikuzia; ura, argia eta berokuntza-sistema).

Mungiako Udalak ebatziko ditu Uda-pasa artistikoetan zehar sor litezkeen gorabehera guztiak. Era berean, zerbitzua bertan behera uztea ere erabaki dezake, osorik edo zati bat, egoera jakin batzuk gertatuz gero; kasurako, Uda-pasa artistikoak behar bezala eskaintzeko beharrezkoa den gutxieneko izen-ematerik ez bada lortzen edo osasun segurtasunaren arloan COVID-19 pandemiari eusteko neurriak hartu behar badira.

5.- AURREKONTUA

Egungo pandemia-egoera eta bilakaera aldakorra dela eta, gaur egungo lizitazioa eguneko 1.136,35 €-ko (BEZik gabe) aurrekontuarekin ezarri da egindako uda-pasako lanegun bakoitzeko. Uztaileko 2 uda-pasetako bakoitza 10 lanegunekoa izango da, eta, beraz, uztaileko Uda-pasa artistikoak 20 lanegun izango ditu guztira.

Guztirako aurrekontua (kontzeptu guztiak barne direla) egindako uda-pasako lanegun bakoitzeko 1.136,35 eurokoa da (BEZ barik), urte 2rako. Kontratu hau beste urte bian (2) luzatzeko aukera egongo da; kasu horretan, urte biko luzapen horren zenbatekoa 45.454 eurokoa izango da (BEZ kanpo).

6.- AURREKONTUKO PARTIDA

43/33402/22718

7.-KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena urte 2koa izango da, eta beste urte bian (2) luzatzeko aukera egongo da. Lizitazio honetan urte bakoitzerako eskatzen den zerbitzua 20 lanegunekoa da. Horren barruan uda-pasa bi antolatuko dira, bakoitza hamar (10) lanegunekoa da. Edonola ere, jarduera hau bertan behera utzi ahal izango da izena ematen duten pertsonen kopurua ezarritako gutxienekora

MUNGIA

heltzen ez bada, edo egokia ez lortzeagatik edo udal honen borondatetik kanpoko beste arrazoi batzuk direla medio; kasurako, pandemiak txarrera eginez gero, jarduera bertan behera uztera behartuko gintuzketen osasun neurriak hartu beharra.

8.- BALORATUKO DIREN ELEMENTUAK

A.- Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideak: 70 puntu gehienez.
-Prezioa: 60 puntu.

-Oinarrizko proiektuari gehitutako hobekuntzak, hau da, familia-bateratzea errazten lagunduko dutenak, eguneroko saioen iraupena luzatuta: gehienez 6 puntu, honela banakatuta: 1,5 puntu ordu erdi gehiago bakoitzeko, gehienez ere ordu 2ko zaintza, arreta eta jarduera eskaini arte (ordubete gehienez uda-pasa hasi baino lehen eta ordubete gehienez uda-pasa amaitu eta gero), kasu horretan puntu guztiak lortuko dira, hau da, atal honetako 6 puntuak.

Baina 2021. urte honetan, osasun-egoera dela-eta, lanaldiaren luzapen hori 8:00etatik 9:00etara bitarteko ordutegian baino ez da kontuan hartuko, eta 3 puntuko balioa izango du ordu erdiko tarte bakoitzean, lau burbuila-taldeak errespetatu beharko direlako ordu-tarte horretan ere; horren ondorioz 4 pertsona egongo dira, burbuila-talde bakoitzeko bat, eta horietako bat Uda-pasaren koordinatzailea izango da.

- Enpresak ekarritako hobekuntzak, uda-pasako parte-hartzaile bakoitzari arreta handiagoa emateko. Gehienez 4 puntu, udalekuan matrikulatutako pertsonen arreta indartzeko begirale bakoitzeko puntu 2.

B.- Formula bidez kuantifika ezin daitezkeen irizpideak: 30 puntu gehienez. Gizarte-hezkuntzako proiektua era honetara banatuta:

-Proiektuaren xedea, helburuak eta lan-metodologia. Bertan azalduko dira garatuko diren balore desberdinak eta erabiliko diren metodologiak: 0-15 puntu bitartean; honetara desglosatuta:

. 15 puntu, bikaina.
. 10 puntu, sano egokia.
. 5 puntu, egokia.

-Jarduera- eta tailer-programa: Baldintza Teknikoen Agirian aitatutako aldeak jasoko ditu.
0-15 puntu bitartean; honetara desglosatuta:
. 15 puntu, bikaina.
. 10 puntu, sano egokia.
. 5 puntu, egokia.

Berdinketa egonez gero, "Jarduera-programa" izeneko atalean punturik gehien lortu dituen enpresari adjudikatuko zaio kontratua. Atal horretan ere berdinketa balego, zozketa bidez adjudikatuko da.

9.-KONTRATISTA AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

Enpresa lizitatzaileek egiaztatu egin beharko du azken hiru urteetan era honetako edo antzeko ezaugarriak dituen proiektu bat egin duela gutxienez; hau da, musika-hezkuntzari eta aisialdiko hezkuntzari lotutakoa. Horretarako, enpresa lizitatzaileek erakunde publiko zein pribatuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte edo hori egiaztatzen duten beste agiri batzuk.

10.- PROIEKTUA

Kontratuaren helburu eta puntu guztiak garatuko dituen proiektu bat aurkeztu beharko du enpresa lizitatzaileak. Proiektuarekin batera, enpresaren edo elkarte lizitatzailearen kaudimen teknikoa aurkeztu beharko du, baita zerbitzu hori beteko duten langileen zerrenda ere. Dokumentazio hori aurkeztu ezean, kontratazio-mahaiak interpretatuko du kontratuaren xedea ez dela betetzen, eta, ondorioz, proposamen hori ez da baloratuko.

Mungian, 2021eko otsailaren 17an

Idoia Ortiz de Zarate Arkotxa
Kultura Zuzendaria

MUNGIA
UDALA